

KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

Euskaditik igarotzean, E9 "Europako Kostaldeko ibilbidea" mendiko ibilbide luze (GR) gisa seinalizatuta dago. Ibilbide hauekin bat egiten du: GR 121* "Talaia ibilbidea" Gipuzkoan, eta GR 123* "Bizkaiko Bira" Bizkaian.

A su paso por Euskadi, el E9 "Sendero Litoral Europeo" se encuentra seinalizado como sendero de gran recorrido. Coincide con el GR* 121 "Sendero Talaia" en Gipuzkoa y con el GR* 123 "Vuelta a Bizkaia" en el tramo vizcaino.



GOMENDIOAK

Saia zaitetz etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, botikina, mugikorra ondo kargatuta, dirua, dokumentazioa...).

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

RECOMENDACIONES

Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.

Planifica bien las etapas y adapталas a tus posibilidades.

Lleva calzado y ropa adecuados teniendo en cuenta la predicción del tiempo.

Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, botiquín, móvil bien cargado, dinero, documentación...).

Respeto el entorno que visitas y al resto de senderistas.


EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Bilboko itsasadarraren ondok doazen lehen kilometroak zeharkatuko ditugu Portugalete eta Santurtzi herrien arteko sardina-saltzaileak bagina bezala, eta berotze-ariketa gisa balioko digute Serantes eta Luzuero mendiek osatzen dituzten kostaldeko talaletara igo aurretik. Bukatzeko, urrezko amaiera Bizkaia iragarri esateko: Arena hondartzan itsasoa azkeneko ukitu ondoren, meatze-trenbidearen antzinako ibilbidera iritsiko gara. Itsaslurreko itsaslabarren gainetik sigi-saga Kantabriako lurretarantz doana.

Los primeros kilómetros junto a la ría de Bilbao, que recorreremos cual sardineras entre las localidades de Portugalete y Santurtzi, sirven de pequeño calentamiento antes de afrontar la ascensión a las atalayas costeras que conforman los montes Serantes y Punta Lucero. Y, como colofón, un broche de oro para despedirnos de Bizkaia: tras tocar por última vez el mar en la playa de La Arena, alcanzamos el antiguo trazado del ferrocarril minero que serpentea sobre los acantilados de Itsasur hacia tierras cántabras.

18,8 km 713 m 6h 50' 1-2-2-4



MIDE

- 1 Ingurunean arriskuak egon daitezke. El medio no está exento de riesgos.
- 2 Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinalak. Sendas o seinalización que indica la continuidad.
- 2 Zaldibideko ibilaldia. Marcha por caminos de herradura.
- 4 6 eta 10 ordu arteko ibilaldi jarraia. De 6 a 10 horas de marcha efectiva.

SEINALEZTAPENA SEÑALIZACIÓN GR® 123

- Ibilbidearen jarraipena. Continuidad del sendero.
- Norabide aldaketa. Cambio de dirección.
- Norabide okerra. Dirección equivocada.


Bidezatia / Tramo PORTUGALETE ► ALDAPA/LA CUESTA

km 0... **PORTUGALETE.** Bizkaia Zubi dotorearen ondoan, Portugalete herri noblean, kaitik jarraituko diogu Abrarantz. Bai ertz honetako Burdinazko Kaia, bai Areetako Txurrukakoa, XIX. mendean eraiki zituzten, itsasadarraren sarreran sortzen zen hondar-barra beldurgarria saihesteko, sakonera handiko itsasontzien nabigazioa zailtzen baitzuen.

km 1,5... **SANTURTZI.** Santurtziko arantza-portua igaro ondoren, Mamariga auzoaren bila abiatuko gara, Serantes mendiaren magalean. Gailurrera igotzean, XIX. mendeko gotorleku baten hondakinak aurkituko ditugu, eta, gailurrean, berriz, dorrea, Abraren eta Bilboko itsasadarraren bista onenak eskaintzen dituena. Bideak mendilerroa zeharkatzen du leize handi baten ondok igaroz, eta, uve handi bat eginez, Aldapa auzora jaisten da, Zierbenako udalerraren burura.

km 0... **PORTUGALETE.** Junto al elegante Puente Bizkaia, en la noble villa de Portugalete, seguimos el muelle en dirección a El Abra. Tanto el Muelle de Hierro en esta margen, como el de Churruca en Las Arenas, fueron construidos en el s. XIX para evitar la temible barra de arena que se formaba en la entrada a la ría y complicaba la navegación de barcos de gran calado.

km 1,5... **SANTURTZI.** Tras pasar el puerto pesquero de Santurtzi, buscamos el barrio de Mamariga, ubicado en las faldas del monte Serantes. En la ascensión a su cima encontramos las ruinas de un fuerte del siglo XIX y, en lo más alto, el torreón que ofrece las mejores vistas sobre El Abra y la Ría de Bilbao. El sendero recorre el cordal pasando junto a una gran sima y, describiendo una gran uve, desciende al barrio de La Cuesta, cabeza del municipio de Zierbena.



| IKURRAK LEYENDA | | | |
|-----------------|--|--|--|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

EUSKAL KOSTALDEA COSTA VASCA

12

PORTUGALETE ► COBARÓN

Km 18,8 713 m 6h 50'



EUSKADI BASQUE COUNTRY




EZ GERATU EZAGUTU GABE! ¡NO TE LO PIERDAS!

Pobeñako zubia zeharkatzean, Barbadun itsasadarraren Kontserbazio Bereziko Eremuan gaude. Estuario horretan padurak, dunak eta marearteko kanalak daude, eta biodibertsitate aberatsari ematen diote babes. Ikusmena zorrotza, hegazti migratzaileak ikus daitezke, hala nola lertxuna, hemen gelditzen baitira atseden hartzeko eta beren bidaia luzeetan indarrak berritzeko.



Lertxuna
Garza real

Al cruzar el puente de Pobeña, nos encontramos en la Zona de Especial Conservación de la Ría del Barbadun. Este estuario alberga marismas, dunas y canales internareales que ofrecen refugio a una rica biodiversidad. Aguzando la vista, se pueden observar aves migratorias como la garza real, que se detienen aquí para descansar y recuperar fuerzas en sus largos viajes.



Ekultura kargalekuan
Escultura en el cargadero

Duela 100 urte pasatxo, burdina ateratzeko meatze-jarduera handia bizi izan zen Pobeña eta Cobarón inguruan. Jarduera hark bertako paisaia eraldatu zuen eta oraindik ere ikus daitezke haren aztarnak. Hondartzako hondarraren kolore gorrixka, plano inklinatuak, trenbidearen plataforma, kargalekua edo beste instalazio zahar batzuk, kostalde osoan nabari dira garai hartako aztarnak.

Hace poco más de 100 años, la zona de Pobeña y Cobarón vivió una intensa actividad minera de hierro que transformó su paisaje y cuyas huellas aún son visibles. Desde el color rojizo de la arena de la playa, a los planos inclinados, la plataforma del ferrocarril, el cargadero u otras viejas instalaciones, los restos de aquella época jalonan toda la costa.

Bidezatia / Tramo ALDAPA/LA CUESTA ► COBARÓN

km 10,3- **ALDAPA.** Kanposantua eta udaletxea atzean utzi, eta auzoaren goiko aldera abiatuko gara, Luzuero tontorrera doan bidexka estuaren bila. Han ere hondakin militarrek aurkituko ditugu. Kasu honetan, Gerra Zibilean erabilitako kostako batería zaharrak dira, bai eta P lerroko beste gotorleku batzuk ere, Francok 40ko hamarkadan eraikitakoak, Bigarren Mundu Gerraren ondoren aliatuen balizko inbasioetik babesteko.

km 14,3- **ARENA HONDARTZA.** Arena hondartzan hainbat zerbitzu aurkituko ditugu. Pobeñako zubia zeharkatuko dugu Barbadungo itsasadarraren gainetik, eta eskailera batzuk hartuko ditugu, antzinako meatze-plano inklinatu baten gainean, Itsaslurreko Bide Berdera joateko. Bide hori itsaslabarren gainetik igarotzen da, burdin meza Cobarongo meatzetatik El Castillo kargalekura eramaten duen trenbide zaharraren plataformatik. Herrigune txiki horretara iritsi baino lehentxeago, Kantabriako mugatik oso gertu, aurkituko dugu E9-ren azken seinalea, eta agur esango diogu Muskizko San Juanera doan GR® 123 "Bizkaiko Bira" ibilbideari.

km 18,8- **COBARÓN.**



La Arena

km 10,3- **LA CUESTA.** Dejamos atrás el cementerio y el ayuntamiento y nos encaminamos a la parte alta del barrio buscando la estrecha senda que conduce hacia la cima de Punta Luzuero. Aquí de nuevo encontramos restos militares. En este caso se trata de viejas baterías de costa usadas durante la Guerra Civil y otras fortificaciones correspondientes a la línea P, construida por Franco en los años 40 para protegerse de una hipotética invasión por parte de los aliados después de la Segunda Guerra Mundial.

km 14,3- **PLAYA DE LA ARENA.** En la playa de La Arena encontramos variedad de servicios. Cruzamos el puente de Pobeña sobre la Ría del Barbadun y tomamos las escaleras, dispuestas sobre un antiguo plano inclinado minero, para encaramarnos a la Vía Verde de Itsaslur. Esta discurrir colgada sobre los acantilados por la plataforma del antiguo ferrocarril que transportaba el mineral de hierro al cargadero de El Castillo desde las minas de Cobarón. Justo antes de llegar a este pequeño núcleo, ya muy cerca del límite con Cantabria, encontramos la última señal del E9 y nos despedimos del GR® 123 "Vuelta a Bizkaia", que se dirige a San Juan de Muskiz.

km 18,8- **COBARÓN.**

! KONTUAN HARTU BEHARREKOAK A TENER EN CUENTA

- Cobaronetik Kantabriara bidean, E9 ibilbidea ez dago seinaleztatuta. Kostaldetik Kantabriako lurretara jarraitu nahi izanez gero, aukera ona da Kostaldeko Donejakue Bidea. Komeni da kontu handiz ibiltzea Piquillo Bide Berdean, luizengatik itxita egon baitaiteke. Zati hori saihestu daiteke Las Mieresetik doan bidearen trazadura alternatiboan barrena.
- De Cobarón hacia Cantabria el E9 no se encuentra señalizado. De querer continuar por la costa hacia tierras cántabras, el Camino de Santiago de la Costa es una buena opción. Conviene extremar la precaución en la Vía Verde del Piquillo, que puede estar cerrada por desprendimientos. Este tramo es evitable siguiendo el trazado alternativo del Camino por Las Mieras.

TELEFONO INTERESGARRIAK TELÉFONOS DE INTERÉS

| | | |
|---|---|--------------|
| Turismo bulegoak Oficinas de Turismo | Portugalete | 94 472 93 20 |
| | Santurtzi | 94 472 93 14 |
| | La Arena (informazio puntua/punto de información) | 94 483 94 94 |
| | | 662 547 468 |

Larrialdiak
Emergencias



turismo.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

↓ TRACK + INFO

